

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduz baliatuz, interpelazioaren ondoriozko ondoko mozioa aurkezten du, Langabezia saria zabaltzeari buruz:

ZIOA:

Aipatutako interpelazioa azaroaren 6an egindako osoko bilkuran eztabaidatuta, Ganberaren babesa eskatzen dugu MOZIO honentzat:

Ikusita langabeziaren inpaktua zenbaterainokoa izaten ari den krisi ekonomikoaren eraginez, beharrezkoa ikusten dugu gizarte talde hori jasaten ari den egoera ezagutzea eta aztertzea. Horren arabera, euren beharrei behar bezala erantzuteko neurri egokienak zeintzuk diren indarrean jartzeko.

Horretarako, besteak beste, Gizarte Segurantzaren legea aldatzea ezinbesteko dela deritzogu. Izan ere, 1992. urtean Espainiako gobernuak egin zuen enpleguaren erreformaren ondotik, langabezia epea aldarazi zuen, 6 hilabetetik 4 hilabetera jaitsiz, beste aldaketa batzuen artean.

Krisi sasoiari, langabezia dauden pertsonen kopuruak gora egin du nabarmen, eta geroz eta herritar gehiago ari da lanik gabe eta langabezia saririk gabe geratzen. Euskateek emaniko azkeneko datuen arabera, euskal erkidego autonomoan 2009ko hirugarren hiru-hilekoan langabezia tasa %8,3koa da, aurreko hiru hilekoan bainoa puntu erdi gehiago. Azkeneko urtean 44.300 lanpostu neto suntsitu dira, Eustaten arabera.

Horrek guztiak, diru-sarrerak bermatzeko legeak jasotzen dituen diru-sarrerak bermatzeko errenten jasotzaile kopuruaren igoera ekarri du. Jaurlaritzak berak aitortu duenez, 58.000 herritarren errenta eskaria berrikusteko asmoa dago.

Krisiaren ondorioz, behin behineko egoera baten aurrean gaude eta horrek aldi baterako neurri zehatzak eskatzen ditu. Eta egoera horretan dauden herritarren egoera zehatza ezagutzea ezinbestekoa dela deritzogu.

Horregatik guztiagatik, eta osoko bilkuran Enplegua eta Gizarte Politiken sailburuari egindako interpelazioan jasotako erantzuna ikusita, interpelazioaren ondoriozko hurrengo mozioa aurkezten du:

INTERPELAZIOAREN ONDORIOZKO MOZIOA:

1- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio langabezian dauden eta langabezia saria agortu duten pertsonen egoera ekonomikoari buruzko azterketa sakon eta zehatza egin dezala, hiru hilean behin horren berri eman dezala Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasunaren batzordera.

2- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, beharren diagnostiko zehatza ezagutu ostean, ekar dezala Eusko Legebiltzarrera gizarte talde horri zuzendutako aldi baterako babes-programa.

3- Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gorteei eskatzen dio indarrean dagoen 1/1994 Errege Dekretu Legegilearen 210-1 artikulua alda dezala eta 31/1984 Legearen 8. artikulua jasotzen zuena berrezar dezala. Hau da, 1992ko aldaketa egin aurretik indarrean zegoen langabezia sarira bueltatu eta luzatzeko .

Gasteizen, 2009ko azaroaren 10ean

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**